

Hernaniko Udaleko Gobernu batzarrak 2026ko martxoaren 05ean egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

HERNANIKO HERRI MUSIKA ELKARTEAREN, HHME ETA HERNANIKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA

Hernaniko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko azaroaren 24an, Hernaniko Herri Musika Elkartea HHMErekin hitzarmena onartu zuen.

Hitzarmenaren indarraldia lau urtekoa izango da, hau da, 2023ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31 artekoa, beste lau urtez luzagarria.

Hernaniko Udalak urtero 43.000 €-ko dirulaguntza emango dio Hernaniko Herri Musika Elkartea HHMEri, 2026ko aurrekontuan Dirulaguntza izendunen atalean jasotakoa: Partida: 1910.481.04.334.00/2026 Kopuru hori lau zatitan ordainduko da, otsaila, maiatza, abuztua eta azaroa hasieran.

2025eko dirulaguntzaren zuriketa garaiz eta dagokion epean aurkeztu ditu memoria, balantze ekonomikoa eta gastuen froga-agiriak.

Kontuan hartu da Herritarrentzako zerbitzuen batzordeak martxoaren 05eko bilkuran AHO BATEZ emandako irizpena

Horiek horrela Gobernu batzarrak **AHO BATEZ erabaki du**

- 2025eko dirulaguntza izendunaren zuriketa **onartzea**
- 2026rako **43.000 €-ko dirulaguntza izenduna** onartzea eta lau zatitan ordainketa egitea: otsaila, maiatza, abuztua eta azaroa hasieran 1910.481.04.334.00/2026 partidatik.
- **1. ordainketa 10.750 €** egin.
Hitzarmenaren indarraldia lau urtekoa da, hau da, 2023ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31 artekoa, beste lau urtez luzagarria.

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorriz

Hala ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Aitor Iztueta Garaikoexea
Behin-behineko udal Idazkaria
Hernanin 2026ko martxoaren 10ean

Jakinarazpen hau elektronikoki sinatuta dago: osotasuna eta egiazkotasuna, QR kodearen bidez edo azpiko egoitza elektronikoen bidez egiazta dezakezu.

